



TRUCÍOS/TURTZIOZKO UDALAREN HERRI-LURRAK EMATEKO ETA ERABILTZEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA

1. artikulua

Trucíos/Turtziozko Udalak herriko mendi-lurra eman ahal izando dizkio Udaleko edozein herritarri zein elkarteri laborantza, lugintza, landaketa edo lehen ustiapeneko jarduerak egiteko izaera juridikoa badu, Ordenantza honetako baldintzen arabera eta Herri Onurako Mendi Katalogatuetako atzemate eta aprobetxamenduen gainean indarreko legeriak ezarritakoa betez.

2. artikulua

Basoa erabiltzeko lurra jaso gura dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Trucíos/Turtziozko Udalerrian erroldatuta egotea.
- b) Baldintza Orokorren eta Berezien Plegua, eta Herri Onurako Mendiak Emateko Partzuergoaren Oinarriak betetzea.
- c) Adindunak izatea.
- d) Toki Ogasuneko zerga-obligazioetan egunean egotea.

3. artikulua

Nekazaritzan edo abeltzaintzan erabiltzeko lurra jaso gura dutenek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Trucíos/Turtziozko Udalerrian erroldatuta egotea.
- b) Ustiapeneko animalien osasun-txartela edukitzea, edo landatzeko lursailen nekazaritza-ustiapenerako txartela edukitzea.
- c) Adindunak izatea.
- d) Toki Ogasuneko zerga-obligazioetan egunean egotea. Izaera juridikoa duten auzo-elkarteak izanez gero, honako hauek bete beharko dituzte edozein lursail jaso gura badute, baita basolursailak jasotzeko ere:

- a) Kide guztiek lehen ezarritako baldintzak betetzea.
- b) Elkartearen egoitza Trucíos/Turtziozko Udalerrian egotea.

4. artikulua

Eskatzaileak horrela eskatuta, Trucíos/Turtziozko Udalak lurren onura emango dio eskatzaileari. Eskabidean, eskatzailearen datuez gain, honako hauek ageri beharko dira:

- a) Azaldu beharko da zer dela-eta eskatzen den lur hori.
- b) Lursailaren deskripzio zehatza: poligono-zenbakia eta lursaila, azalera, izendapena eta mugak.
- c) Ordenantzak ezarritako guttia bete egingo dela hitz ematea.
- d) Zehaztu beharko da lurra zein erabilerarako eskatzen den. Lurraren eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira: lurraren eskatzailea gutxienez urte beteko antzinatasunez Trucíos/Turtziozko herritarra dela egiaztatzeko Alkateak luzatutako ziurtagiria. Hau beharrezko izango da basoko lurra emateko, baina



nekazaritzako lurak emateko ezartzen diren lehentasun-irizpideen artean kontuan hartzeko datua baino besterik ez da izango. Halaber, eskatutako lursailaren planoan, honetan artikulua honetako

b) ataleko datuak, identifikazio-krokisa eta mugena jasota agertuko dira. Agiri horien kopia bi aurkeztu beharko dira. Eskaerak betetzen ez baditu 30/1992 Legearen 70. artikulua eta Ordenantzak berak jasotzen dituen baldintzak, interesdunari agindeia egingo zaio hamar eguneko epean akatsa konpondu edo nahitaezko agiriak aurkezteko; halaber, adieraziko zaio horrela egiten ez badu, bere eskaeran atzera egin duela ulertuko dela. Udalak organo eskudunekin eta bere uste egoki diren bitartekari guztiekin lankidetzan lurak aztertuko ditu erabilerarik onena ezagutzeko, eta baso-berritzea ekidindo du abeltzaintza eta nekazaritzarako baldintza hobeak badaude, eta hori guztia landaketen antolaketa sendoa egiteko. Baso-erabilpenerako lur bat emateko epeak ebaketa-aldiarekin bat egingo du, eta nekazaritza edo abeltzaintzako lurrean sei urtekoa izango da. Epea luzakorra izan daiteke, baldin eta ematean ezarri ziren baldintzak mantentzen badira. Emakida luzatuko da jabetza eskubiderik gabe eta gainontzekoen kalterik gabe.

5. artikulua

Udalak, lurra ematerakoan, honako irizpide hauek hartuko ditu aintzat: eskatzailearen gizarte eta ekonomia egoera, beraz lehentasuna emango die errenta-mailarik txikien duten ekonomiei, eta nekazaritza edo abeltzaintza bakarrik jarduten duten lagunei; halaber, elkarte gisa, nekazaritza edo abeltzaintza ustiapen batean jardín gura duten auzoko elkarte edo antzekoen alde egingo du; abelgorriekin jarduten ez diren beste erakunde batzuetan egindako ekimenak ere sustatuko dira, baldin eta zonaldean holako elkarterik ez badago.

Herritar batek baino gehiagok lur bera eskatzen badu, Udalak hobetsiko du emakidadun zaharrarekin 9. artikuluan azaldutako ahaidegoa duen herritarraren eskabidea. Hala egingo du, azken batean, lurrean sartutako kapitalak eta lanak familiako kide baten onurakoa izan behar dutelako, beti, Ordenantza honetako baldintzak betetzen badira. Sorospidez, emakidak ematerakoan, lehentasuna emango zaie gaur egun lursail horiek ustiatzen diharduten herritarrei, nahiz eta emakidaren titularrak ez izan.

6. artikulua

Emakidari uko egin edo ezeztatu ostean, lurrean hobekuntza edo itxitura-lanik eginez gero, emakidaren titular zaharrak horren berri eman beharko du. Gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuak balioespen-txosten bat egingo du horretaz, eta Udalak txosten hori bidaliko die emakidaren titular zaharrari eta berriari. Titularrek, gura izanez gero, hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko. Alegazioak Udaletxean aurkeztu ostean, Udalak erabakiko du zenbat diru eskatu behar zaion titular berriari, emakidadun zaharrari emateko, egindako hobekuntzen ordainetan. Herri lursailen erabiltzeari uko egiten zaionean lursailotan eginiko hobekuntzak ordainduko dira. Hobekuntzatat joko dira mendia larredi egitea, eta hori hektareako ehun mila eta berrehun mila pezeta bitartean.

7. artikulua

Emakidadunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Jasotako lurak behar bezala ixtea, Mendi Batzordeak egindako neurketaren eta mugapenaren arabera.
- b) Lurra jaso duen lagun batek lurra ixten badu mugakidearen itxura baliatuz, besteari ordaindu beharko dio, bion artean hitzartutako kopurua. Kopurua dela-eta, adostasunik ez badago, Udalak erabakiko du, Mendi Zerbitzuaren txostenak ezarritakoa betez.
- c) Lurra era egokian eta zentzuzkoan aprobetxatzea.
- d) Udalak ekitaldi bakoitzerako ezarritako kanona ordaintzea, bai eta Udalak ezar dezakeen beste edozein ere.
- e) Lurra erabiltzea Udalak emandako erabilerarako.



Turtziozko Udala

f) Lurra jaso duen lagun berak lurra lantzea, zuzen. Alabaina, emakida jaso duenarekin eta bere ardurapean bizi den lagun batek lana egiten badu, edo, emakidadunak makineria egokirik ez duelako, makineria-lana beste lagun batek egiten badu, lurrak ez du duen izaera galduko.

g) Finka-itxitura moduan, hesiak eta zuhaixkaz egindako palaxuak ipini ahal izango dira. Hala eginez gero, lurrak udal-bideekin muga egiten badu, emakidadunak zaindu eta garbitu beharko du.

h) Ekoizpen zikloa den bitartean basoko lan guztiak behar den moduan egitea, bai eta arriskutsua izan daitekeen edozein zioengatik noizean behin agintzen diren guztiak ere.

8. artikulua

Udalak emakidak suntsiaraziko ditu honako kasu hauetan:

a) Emakidadunak agerian gutxiegi erabili badu, gaixorik egon delako izan ezik.

b) Emakidadunak berak zuzen lantzeari edo ustiatzeari uzten badio emandako lurra. Dena dela, lurra abelur erabilpenari uzten bazaio izaera pertsonaleko gaixotasun edo arazo larri baten ondorioz, eta lurra ezin badu bere familiako kide batek zuzen ustiatu, emakida ez da suntsituko emakidaduna behin-betiko berreskuratu arte, hala eta guzti ere epealdi horretan zehar lurra udalak gainbegiratuko du.

c) Emandako lurra gainditzen bada.

d) Emakidadunari zehapena ezartzen bazaio, mendian kalteak sortzearren.

e) Emakidadunak Udalari kanona ordaintzen ez badio ondorio horretarako ezarritako epeetan.

f) Emakidadunak udalerriko auzotartasuna galtzen badu.

g) Interesatuak emakidari uko egiten badio.

h) Emakida jaso duenak, lurra eman zaion helbururako erabili barik, beste helburu baterako erabiltzen badu.

i) Emakida jaso duena zorduna bada, Toki Administrazioaren funtsaren kargura, eta premiamendu horren agindua luzatu bada.

j) Udalak, lur osoa edo lurraren zati bat behar badu, beste helburu edo zerbitzu publiko baterako, udal-obrak egiteko edo lehentasuna duten beste erabilera batzuetarako.

k) Lur osoa edo lurraren zati bat okupatzea beharrezkoa bada,

Administrazioak onartutako obrak edo lanak egiteko.

l) Azpierrementamendu edo gainontzekoei lurrak uzteko beste edozein era gertatzen denean udal baimenik barik, nahiz prezioaren truke ez izan, edo zirkunstantzia hori frogatu ezin denean.

9. artikulua

Lurrak besterendu ahal izango dira honako kasu hauetan:

a) Emakidaduna hiltzen bada, ezkontideari, seme-alabei, ondorengoei, gurasoei, neba-arrebei, edo, horiei izan ezik, ilobei.

b) «Intervivos egintza, elbarritasun edo jubilazioagatik denean: ezkontideei, ondorengo seme-alabei, gurasoei edo neba-arrebei, edo, hauen ezean, ilobei, eta osaba-izebengandik ilobengana eta alderantziz.»



Turtziozko Udala

c) Lurra besterentzean desadostasunik egotekotan, Udalak hartuko du horri buruzko erabakia. Ondorengoek Ordenantza honetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte. Emakidadunak emakidaren titulartasuna aldatzeko eskatu ahal izango du. Emakidaduna hiltzen bada, testamentua hartuko da aintzat, horrelakorik badago. Osterantzean, legezko oinordekoei emango zaie, lehen azaldutako ahaidegoaren arabera. Ez da indarrean sartuko, harik eta Udalak eta Baso Zerbitzuek onartu arte. Nekazaritza ustiapeneko lursaila bada, hau da, baso-ustiapeneko ez bada, 5. artikulua ezarriko da.

10. artikulua

Landa-erabilerari dagokionez, Udalak herritarrei emango dien gehienezko emakida hamar (10) hektarea izango dira, gehienbat, abeltzaintza-ustiapenerako baliatzen badu. Edozein modutara, herritarrak ezin izango du 20 hektarea baino gehiago eduki, jabetza eta emakida batuz. Udalak hasieran zehaztutakoa baino lur gehiago eman ahal izango dio herritarrari edo herritar-taldeari, baldin eta arrazoiak ematen baditu, ondorio horretarako izapidetutako espediente baten bidez. Baso Partzuergoentzako emakidak, gehienez, 5 hektareakoak izango dira titular bakoitzeko, baldin eta baso erabiltzenerako emango den lur azalera bere jabetzan duen baso-azalera baino handiagoa ez bada. Gaur egun zenbateko hori gainditzen duten partzuergo-herritarrak edo Ordenantza honetako beste baldintzaren bat betetzen ez dutenak araupetu beharko dira emakida amaitzen den unean.

11. artikulua

Ordenantza hau indarrean sartu aurretik, kanoneko Udal-lurrean baimenik gabe egin diren landaketak araupetu ahal izango dira, baldin eta Udal-agindua aurka egin ez badira. Hala izatekotan, Udalari egindako kalteak ordaindu beharko zaizkio, hain zuzen, lursailaren baso-ustiapenaren %50a.

12. artikulua

Herritarren interesekoak diren lurak edo jolas eta aisialdirako guneak ezingo dira eman, esate baterako, eliza, baseliza, zelai, plaza, eta abarren ondokoak. Orobat, ezingo dira eman beste bideak eteten dituzten lurak, ez aprobeztatzen diren edo aprobeztatzen diren urbegiak, ezta Udalaren ur-hornikuntzako sarearen kutxetak ere. Halaber, ezingo dira eman funtsa publikoen bitartez inbertsioak jaso dituztenak eta kudeaketa-planen barruan egon direnak.

13. artikulua

Bideekin muga egiten duten itxiturek ondoko tartea utzi beharko dituzte: Bidearen ardatzeraino, gutxienez, 2,50 metroko tartea, eta gurdi-bidea bada, metro bat; itxituretatik urbegietaraino eta kutxetetaraino, gutxienez, 17 metroko tartea. Itxitura berriak ipintzeko, udal-lizentzia eduki beharko da.

14. artikulua

Landaketen artean, eta landaketaren eta beste erabilera bateko lursailen artean behar diren tartea arautuko ditu 3/94 Foru Arauak, ekainaren 2koak. Finkak Udalarenak badira eta lursailen erabilerak berdinak badira, tartea erdira jaitsiko da.

15. artikulua

Lurra edukitzearen Udalari urteko ordaindu behar zaion kanona Udalbatza Osoak ezarriko du, nekazaritza irizpideen eta Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak ezarritako oinarritzko prezioen arabera.

16. artikulua



Turtziozko Udala

Herri onurako lurretan ezin izango da eraikuntza berriak egin, nekazaritza, abeltzaintza edo enpresa jardueren lotuta daudenak izan ezik, eta horiek beharrezkoak direla frogatu bada. Udal lizentzia eduki beharko da eta eraikinak badaezpadakoak direla ulertuko da.

17. artikulua

Udalbatzak horrela erabakiz gero, Udalak kanon berezi bat ezarri ahal izango die herri onurako lurrean dauden eraikinei eta etorkizunean egingo direnei. Horretarako, eraikitako metro karratuak hartuko ditu oinarritzat.

18. artikulua

Udalak, organo eskudunekin batera, egokitzat jotzen dituen baliabideak erabiliz, lursailen azterketa bat egingo du, lursailen erabilera hobeto ezagutzeko eta nekazaritza erabilerekin bateragarria izan dadin.

19. artikulua

Udalak dituen azalera gutxiko herri-lursailen emakida salbuetsita geratuko da Ordenantza hau ezartzetik, baldin eta bere ezaugarrietatik nahikoa ez bada baso edo abelur jarduera ezartzeko, edo, gaur egun, Ordenantza honetan arauturik dauden erabilpenekin zer ikusia ez duen jarduera zehatz bat bertan egiten bada.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA

Udaleko kanon-eskubideen eta partzuergoen titularrek, Udalarekin kontraturik edo hitzarmenik izenpetuta ez badute gaur egun, urte bateko epea izango dute, Ordenantza hau indarrean sartzen den egunetik hasita, Udalari eskatzeko emakida legeztatu dezan. Horretarako, kontratua egin beharko da, Ordenantzaren xedapenak betez eta lursailaren plano grafiko bat erantsiz. Orobat, eskabide berean edo beste batean, emakidaren erabilera aldatzeko eskatu ahal izango dute, gura izanez gero. Hala izatekotan, Mendi Sailaren txostena ikusi ostean, Udalbatzak erabakia hartuko du aurkeztutako eskabideen gainean. Urte bateko epe hori amaitu ostean, emakidadunak jarduera eskabiderik aurkeztu ez badu, dagokion titulartasuna kenduko zaio eta Udalaren eskuetan geratuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau ulertzeko zalantzarik egotekotan, lehenengo eta behin, Trucíos/Turtziozko Udalak izango du eskumena». Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den

egunaren biharamunetik hasita indarrean jarriko da.

Turtziozen, 2000ko azaroaren 30ean.—Alkatea